

OPOSAKETAK EGONKORTZEKO BIDE BAKARRA?


Negoiazio Kolektiboarekin gauden honetan, gure patronala den Hezkuntza Sailak, oposaketan gaia jartzen digu berriro ere mahai gainean, irakaskuntza publikoak dituen gaitz guztiak konponduko dituen botika miragarri izango balitz bezala. Eskaintza honen aurrean aipatu beharra dago irakaskuntza publikoak oposaketan gainera badituela hainbat eta hainbat gai erantzunik, eta okerreana dena, alternatibarik ez dituztenak. Hauen artean 2003tik Lan Hitzarmenik gabe gaudela eta ordutik hona ikastetxeetan sortu diren behar berriei erantzungo dien plangintza integralen beharra non arautuko ziren figura berrien ezarpena, arazo berriei erantzunik, ... **DAGOENEO JAKINAREN GAINEAN EGONGO ZARETE NEGOIAZIO KOLEKTIBOAREN EGOERAZ ETA BERAU MOBILIZAZIOEN BIDEZ IRAULTZEAREN BEHARRAZ, SOILIK BORROKAK EMANGO BAITIZKIGU DAGOZKIGUN ESKUBIDEAK ETA!**

Hala ere, oraingoan eta euskarri honetan, Hezkuntza Sailak egin berri duen oposaketa deialdiaren inguruan mintzatuko gara. **Oposaketa faseak** Lanpostu Zerrenda Ofizialetan barneratuta dauden lanpostuak **soilik eskaini ditzake**, hau da, Eusko Jaurlaritzaren urteko aurrekontuetan jasota dauden ikastetxeetako plantila **minimoak**. Bestalde Funtzionamendurako plantilak daude, hots, ikastetxeetan benetan gauden irakasleen plantila erreala dago. Gauzak honela, **oposaketa bidez ez da behin ere irakaskuntzan dihardugun irakasleriaren egonkortasuna lortuko**. Honekin batera, adibide gisara, horrenbestetan Hezkuntza Kalitate eredu bezala jartzen diguten Finlandiaren kasuan aipatu beharrean gaude funtzionario izaerarik ez dela existitzen bertakoen artean eta hortaz, **oposaketak irakasleria egonkortzeko bide bakarra ez dela** eta honekin batera, **oposaketak versus hezkuntza kalitatea ere zalantzan** jartzen dela argi eta garbi ikusi daiteke.

Puntu honetara iritsita eta goian aipatutako aurrekariak ikusirik, **LABen AUSARTAK IZATEKO GARAIA IRITSI DELA IRIZTEN DIOGU ETA IRAKASLERIA EGONKORTZEKO GARAIA OPOSAKETA/FUNTZIONARIO DIKOTOMIA GAINDITU ETA URRATS BAT HARATAGO JOATEAREN BEHARRA DAGOELA IKUSTEN DUGU, FINKAPEN FIGURA BERRIAK AZTERTZEAREN BEHARRA ALEGIA!** Dagoeneko LABen urrats hori emanda dugu eta, **EGONKORTASUN AKORDIOA MANTENTZEAREN BEHARRA** aldarrikatzeaz gain, EAEko irakaskuntza publikoan lanean diharduzuen irakasle ordezkoen kolektiboari egonkortasuna emango dizuen alternatiba landuta dugu. **ETORKIZUNEO IRAKASLERIAREN EGONKORTASUNA IRUDI BERRIAREN IDEIARI AURPEGIA JARRI DIOGU LABen.**

Hainbat urtetako hausnarketa, eztabaida, batzar eta kontsultek azkenik beren fruitua eman zigun iazko ikasturtean eta nahiz eta dokumentua 2006ko apirilaren 10erako zirriborro gisara gauzatuta egon, ez zuen argirik ikusi Lakuan 2006ko maiatzaren 4ean sartu genuen arte (hurrengo orrietan duzue aurkeztutako dokumentua). Ikasturte honetan irakasle ordezkoen artean zabaldu eta jendarteratu beharreko proposamena dugu hau. Datozen ikasturteetan borrokatu beharreko alternatiba badugu ordezkoak. Gu ordezko guztion batasunak, indarrak eta borroka emango digute egonkortzeko bide berria. Egonkortzeko sistema demokratiko eta zuzenena, ordezkoen kudeaketarako erabiltzen den baremoaren oinarritzko printzipioa bermatuko duena.

ORDEZKO ETORKIZUNEO IRAKASKUNTZA EGONKORRAREN ALDE BORROKA DEZAGUN!

**EGONKORTASUNA:**

4 MAY 2006

LANGILEEN ESKUBIDEA,

SARRERA IRTEERA

ESKOLEN BEHARRA

Zkia. 26046 Zkia.

Ikastetxeetako lanpostuak egonkortzeko garaian gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza administrazioak erabiltzen dituen bideak oposaketak eta egonkortasun poltsa dira. Oposaketek ez dute ikastetxeko irakasleria guztia egonkortzeko balio, Lanpostu Zerrenda Organikoen arabera eskaintza soilik egiteko aukera baitago, eta LZ hauek ez dira ikastetxean dagoen irakasleria plantilaren isla. Hortaz, nahiz eta ikastetxe bateko LZ organikoko lanpostu guztiak oposaketetara atera, ikastetxeko irakasle asko ez da egonkortuko. Egonkortasun poltsari dagokionean, egun 1500 egonkorren kupoa dago ezarrita funtzionario ez diren irakasleen artean, EAEko unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmenaren (228/2002 Dekretua) arabera.

EGONKORTASUN AKORDIOAREN DEFENTSA

Egonkortasun akordioa 158/2004 Dekretuaren bidez berritu zen, baldintza berriak ezarri zirelarik. **LABek beti babestu du akordioa bere osotasunean, eta horren luzapena eskatzen du, 158/2004 Dekretuak adierazten dituen baldintzetan. Argi eta garbi esan behar dugu, egonkortasun akordioak aitortutako irakasle egonkorren egoerak bere horretan Jarraitu behar duela, beren eskubide guztiak berretsiko direlarik**, beti ere, aipatu 158/2004 Dekretuak ezarritako baldintzak betetzen badira. Ildo honetan, LABek irakasleen **egonkortasun neurriak eragiteko konpromisoa hartzen du, egonkortasun poltsan dauden irakasleen egoera eta eskubideak bermatuko direla exijituz**, beti ere, akordioak zehazten dituen hizkuntza eskakizunen betekizunak betez gero.

LANPOSTU EGONKORRAK DEFINITUKO DITUEN BESTE SISTEMA OSAGARRIA

Baina, oposaketa sistemak eta egungo egonkortasun poltsak mugak dituzte ikastetxeen lanpostuak egonkortzeko bidean. Izan ere, egungo egonkortasun akordioan sar daitekeen langilearen puntuazioa hartzen baitu egonkortasun irizpide gisa, lanpostuen ezaugarriak kontuan hartu gabe. Ondorioz, espezialitate batzuetan ematen den lan aukera faltak mugatzen du egonkortasuna, berau kidego ba itzean puntuazioaren arabera definitzen baita.

Ezinezkoa da kidegoko espezialitate askotan lanpostuak egonkortu, beste hainbat espezialitatetan puntuazio altuagoarekin egonkortzeko aukerarik ez dago eta, horretarako urte osoko lanpostu hutsa hartzeko aukerarik ez baitago. 2005-2006 ikasturtean 70 puntu baino gehiago behar izan da egonkor bihurtzeko. Hau horrela izanik, espezialitate askotan dauden irakasle ordezko gehienak ezin izango dira egonkortu, lanpostu horiek estrukturalak izan arren.

Egoera honen aurrean, egonkortasun akordiopean dauden irakasleen eskubide guztiak bermatuko direlarik, akordio hori osatu behar duen beste eredu osagarri baten proposamena aurkeztu nahi du LABek. Ildo horretan, lanpostu estrukturalen zerrenda zehaztea nahi dugu. Esan nahi baita ikastetxeetako lanpostu asko egonkorrek direla denboraldi batean, eta horiek denboraldi zehatz baterako modu egonkorrean esleitu daitezkeela. Aldakorrak diren lanpostuak izango liriateke urtez urte esleitu liriatekeenak. Horrelako planteamendu bat martxan jartzeko behar diren baldintzak eta bermeak ongi zehaztu beharko liriateke, zerrendetan dauden irakasleen eskubideak segurtatu behar baitira, duten puntuazioaren arabera.

Honela bada, LABek honako proposamena aurkezten du:

Esleipen ekitaldian banatzen diren lanpostuak sailkatu beharko lirатеke. Alde batetik, ikastetxetan iraunkortasuna duten lanpostuak egongo lirатеke, urtetik urtera errepikatzen diren titularrik gabeko lanpostuak edo epe baterako (3/4 urtetarako) zerbitzu eginkizunetan esleitzen direnak. Lanpostu hauek A talde batean kokatuko lirатеke. Bestalde, badaude hainbat lanpostu urtebeterako soilik libratzen direnak: IRALerako liberazioak, liberazio sindikalak, ikasketengatik lizentziak, eszedentziak, urtebeterako zerbitzu eginkizunak, urte batean agertu hurrengoan desagertzen direnak, ... Honako lanpostu hauek B talde batean sartuko lirатеke. Horrela bada, esleipen ekitaldian A taldeko lanpostua hartuko lukeen irakasleak 3 (4) urtetarako izendapena izango zuen. B taldeko lanpostuak hartuko luketen ordezkoiak urtebeterako lanpostuarekin gelditako ziren. A taldeko lanpostuak 3 (4) urtez behin esleituko lirатеke eta 13 taldekoak berriz, urtero-urtero.

Lanpostu egonkorren esleipen sistema honek mugak izan beharko ditu kolektibo desberdinetako irakasleen (funtzionarioak, interino egonkorrak, ordezkoen arteko puntuazio irizpidea) eskubideak bermatu ahal izateko. Hortaz, esleipen egonkor hori baldintzatua egongo litzateke, aipatu eskubide onek bermatzeko neurriak jarri beharko direlarik.

Bide desberdinak egon daitezke berme hauek segurtatzeko eta Enplegu Publikoen Eskaintzek izan ditzaketen eragina zehazteko. Irizpide batzuk aipa daitezke: espezialitate bateko lanpostuak desagertuko balira puntuazio altuago duen irakasleari lanpostua izateko eskubidea bermatuko zaio, eta inork lanpostua galtzekotan puntuaziorik baxuena duen irakaslea izango litzateke (egoera honek ikasturtea bukatzean izango litzateke efektuak, hurrengo ikasturteari begira). Halaber, irakasle funtzionarioen eskubideak (lanpostu finkoa izateko eta leku aldatzeko eskubideak) bermatu beharko dira. Ildo honetan, ordezkoi egindako izendapenak lekualdatze lehiaketa eta ikasturte hasierako behin-behineko birkokapen prozesuen menpe egongo lirатеke. EPE deialdiak egitekotan, kidegoen arabera egingo lirатеke (urte batean Haur eta Lehen Hezkuntzako, hurrengoan Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketakoa, hurrengoan Araubide bereziko Irakaskuntzakoak ...), kidego horietako 3 (4) urteko lanpostuen esleipenarekin bat egingo dutelarik denboran.

Planteamendu honekin gehiago hurbiltzen gara ikastetxeen egonkortasun beharretara, eta jakina, irakasleek egun dituzten eskubide guztiak bermatzen dira: **norberak aukeratuko ditu zein motako lanpostua nahi duen**, beraren interesen arabera; beti ere, lanpostua lortzeko lehentasunak bermatuko direlarik.

LABen proposamen honek irakasle ordezkoen lan-baldintzetarako eta ikastetxeen egonkortasunerako onurak izugarriak eragingo litzateke:

- Irakasleak ikastetxe berdinean 3 (4) urtetarako egonkortasuna izanik, ikastetxeko errealitatea hobeto ezagutzeko aukera izango luke. Ezagutza honek ikastetxeak aurrera atera beharreko proiektuekin inplikazio handiago bat izatera bultzatuko luke irakaslea. Irakasleari Hezkuntza Sistemaren ezagutza sakonago bat hartzeko eta bere burua irakaskuntzan hobeto kokatzeko balioko luke.
- Egonkortasun honek irakaskuntza kalitatean ere izango zuen isla, irakasgai berdina 3 (4) urtez jarraian irakasteko aukera emango baitzion irakasleari. Ez gaur egun gertatzen den moduan, urtez urte irakasgai ezberdin bat irakasten ari garela. Irakasleek ez zuten urtez urte irakasle aldatzarik sufrituko. Honek pedagogia aldetik aurrerapauso handia suposatuko luke, batez ere, Haur eta Lehen Hezkuntza
- Administrazioarentzat esleipen ekitaldiak eramangarriagoak izango lirатеke esleituko beharreko lanpostu eta bertaratuko zen irakasle kopurua txikiagoa izango baitzen. Honek dezente arinduko zuen esleipen ekitaldia bera eta ekitaldiaren eraginez sortu litezkeen hanka sartzeak ekiditeko erraztasun handiagoak izango zituzten.

ORDEZKATZE KONTRATUEKIN IRUZURRIK EZ!**LABen BADUGU ALTERNATIBA!**

Dakizuen bezala, 05/06ko esleipenetan, lehen aldiz, ordezkatzeko kontratuak banatu ziren. Banaketarekin arazorik ez zen sortu Gipuzkoako inspektore batek esleipen prozesuan muturra sartu zuen arte. Araba eta Bizkaian banatutako ordezkatzeko kontratuekin arazorik egon gabe, Gipuzkoan hainbat ordezkatzeko kontratu bertan behera gelditzeko eskaera egin zen Gizarte Asegurantzatik. Egoera honek errelebatua (titularra) lanpostura itzultzera behartu eta errelebista (ordezkoa) langabezian gelditzera behartzen zuen. Gaiak epaitegietan amaitu zuten.

Gauzak horrela, ordezkatzeko kontratuak bertan behera utzita zeudela, errelebistak 06/07 esleipenetara gainontzeko ordezkoen gisara joan ziren, hau da, langabezian eta lanpostu bila. Esleipen hauetan ikasturte osorako bakanteak eskuratu zituzten. Esan beharra dago 06/07 ikasturterako ere hainbat ordezkatzeko kontratu eskatuta zeudela, baina Hezkuntza Saila epaiaren zain egonik, ez zituen martxan jarri nahi, ez baitzekien zer prozeduren bidez egokia izango zen berau aplikatzea. Ikasturtea hasita zegoela, esleipenetan bakantea lortu zuten ordezkoen ordezkatzeko kontratua berrezartzearen aldeko epaia argitaratu zen. Behin epaia eskuartearen zuela, Gizarte Asegurantzak epaiak zioenari bide emango ziola esan eta Hezkuntza Sailak ere berdina egiteko paradan aurkitu zen:

- Errelebatua lanpostutik kendu eta errelebista jarri. Arazoa errelebistak esleipenetan hartutako ikasturte osorako bakantearekin zegoen. Bada, hori ere, modu erraz batean konpondu zuten: errelebista zuen lanpostutik askatu eta hau telefono bidez banatu.

LABetik erabilitako prozedura hau ordezkatzeko kontratuen banaketan ezartzea exijitzen dugu, ez baita zilegi telefono bidez honelako lanpostu bereziak banatzea! **HEZKUNTZA SAILAK BESTE GAINONTZEKO SINDIKATU GUZTIEN LAGUNTZAREKIN ORDEZKATZE KONTRATUAK ORDEZKAPEN SOIL GISARA SALDU NAHI DIZKIGUTE BAINA EZ DA HORRELA ETA BERAIEK ERE BADAHITE!** Ordezkoen kudeaketa arautegiak ikasturte osoko edota iraunaldi txikiagoko lanpostuak arautzen ditu eta ez ikasturtea bera gainditzen dituen lanpostuak, hots, ordezkatzeko kontratuak. hortaz, EAEn Irakaskuntza Publikoan lanerako aukera dugun ordezkoko guztiok altxa eta geure eskubideengatik borroka gaitzen!

Aplikatzeko ari diren telefono bidezko banaketaren prozedurak zerrenden baremoei muzin egiten die lehentasun printzipioari iruzurra eginaz. Prozedura honek zerrenden desitxuratzeko basatia ekarriko du, epe motzean erretiro partziala hartu behar duten irakasle laboralen ordezkatzeko kontratuekin.

LABen ALTERNATIBA

Ordezkoen kudeaketarako araudia berriztatu beharko litzateke, orain arte existitzen ez zen kasu hau berma guztiarekin arautzeko. Araudi berrian atal bat erantsiko litzateke, erretiro partzialek sortutako lanpostuen esleipena zehaztuko lukeena:

- **Ordezkatzeko kontratuak esleitzeko Zerbitzu Eginkizun gisako deialdia erabiliko litzateke.** Zerbitzu Eginkizun hauetarako sarrera ordezkoko orok izango genukeen: bai lanean gaudenok baita langabezian gaudenok ere. **Deialdi berezi honetako meritu bakarra puntuazioa izango litzateke.** Ordezkatzeko kontratua hartuko lukeen ordezkoko askatutako lanpostua, ikasturtea bukatu arteko ordezkapena alegia, telefono bidez banatuko litzateke.

Era honetan soilik bermatu daiteke ordezkoen zerrendak egituratzeko erabiltzen den baremoaren irizpidea, **antzinatasunak ematen digun lehentasuna** alegia. LABek proposatutako alternatibak biderik badu. Hau frogatzeko aurrean Gipuzkoan erabilitako prozedura berezia dugu aintzindari: jada lanean ari ziren ordezkoei beraien lanetatik askatu eta ordezkatzeko kontratua egokitu zitzaizkien.

Horregatik, ordezkoko, hau da LABek defendatzen duen alternatiba ordezkatzeko kontratuen banaketari dagokionean, azken finean, hau baita erarik **justu eta demokratikoa!** Honela bada, **ordezkook bil eta borroka gaitzen geure eskubideen alde! Ordezkoen Kolektibo osoari iruzurrik ez!**

BAIONA:	13 Marengo karrika	t. 05 59 59 50 20 • fax 05 59 59 50 21	baiona@labsindikatur.org
BILBO:	Rekalde Zumarkalea 62, 48010	t. 94 470 69 26 • fax 94 470 69 09	irakaskuntzabizkaia@labsindikatur.org
DONOSTIA:	San Bladi 1, 20011	t. 943 45 85 62 • fax 943 47 27 09	irakaskuntzagipuzkoa@labsindikatur.org
GASTEIZ:	Bueno Montreal 10, 01001	t. 945 25 95 44 • fax 945 25 80 39	irakaskuntzaaraba@labsindikatur.org
IRUÑEA:	M. Zelaieta 75 2A atea, 31014	t. 948 38 24 74 • fax 948 22 12 76	irakaskuntzafarroa@labsindikatur.org